



Inflazioa eta pentsioen errebalorizazio-mekanismoak

Egungo inflazio-egoerak pentsioen errebalorizazio-mekanismoen garrantzia azpimarratu du, herrialdeka eta herrialde bakoitzeko pentsio-sistemen arabera nabarmen aldatzen baitira. "Pensions at a glance" txostenak (ELGA) errebalorizazio-mekanismoak aztertzen ditu.

Erreferentzia-adierazlea prezioak dira (inflazioa¹), ELGAko herrialde gehienek aplikatzen dute (23 herrialde, Espainia barne, azken erreformaren ondoren). Beste herrialde batzuek prezioak eta soldatak konbinatzen dituzte (5 herrialde) edo soldatak soilik hartzen dituzte (3 herrialde).

Pentsioen errebalorizazioa, erosahalmena babesteko helburuarekin, beste faktore batzuen mende ere badago, hala nola errebalorizazioaren maiztasuna, aintzat hartutako erreferentzia-aldia eta errebalorizazioaren aplikazioa. Horrela, emaitzek honako hau erakusten dute:

- **Errebalorizazio-maiztasuna:** ELGAko ia herrialde guztiek errebalorizazio-aldi finkoa aplikatzen dute, oro har, urtean behin eta, batez ere, urtarilean. Belgikak, aldiz, pentsioak errebalorizatzen ditu KPIk % 2ko langa gainditzen duenean.
- **Erreferentziako aldia:** oro har, 12 hilabeteko erreferentzia aldia da, eta urte naturala (urtarrila-abendua) edo beste aldi bat (abendua-azaroa, Espainian bezala) izan daiteke.
- **Errebalorizazioaren aplikazioa:** herrialde gehienek erreferentziako alditik hiru-lau hilabetera egokitzen dituzte pentsioak. Epe hori bi hilabetera laburtzen da Espainian eta Frantzian, eta sei hilabetera arte luzatzen da Austrian.

Duela gutxi, herrialde batzuek aldaketak egin dituzte pentsioen errebalorizazio-mekanismoetan, azkenaldiko inflazio handia dela eta. Hala, Italiak, Erresuma Batuak eta Txekiar Errepublikak pentsioak errebalorizazio-indizearen azpitik egokitu dituzte. Gainera, herrialde batzuek doitu egin dute errebalorizazio-aplikazioa, epe hori aurreratu (Frantzia eta Finlandia) edo atzeratu (Portugal).

1. KPIa da erreferentziako adierazlea, baina herrialde batzuek KPIaren kalkulutik kanpo uzten dituzte zenbait produktu, batez ere zerga berezietan lotuta daudenak: Belgika (alkohola, tabakoa eta erregeiak), Frantzia (tabakoa) eta Portugal (etxebizitza).

Iturria: Geuk egina, ELGA oinarri hartuta

La inflación y los mecanismos de revalorización de las pensiones

El escenario inflacionista ha subrayado la importancia de los mecanismos de revalorización de las pensiones, que varían considerablemente según países y sistemas de pensión de cada país. El informe "Pensions at a glance" (OCDE) analiza los distintos mecanismos de revalorización.

El indicador de referencia son los precios (inflación¹), siendo el mecanismo aplicado por la mayoría de los países de la OCDE (23 países, incluido España tras la última reforma). Otros países combinan los precios y los salarios (5 países) o consideran sólo los salarios (3 países).

La revalorización de las pensiones, con el fin de salvaguardar su poder adquisitivo, también depende de otros factores como la frecuencia de la revalorización, el periodo de referencia considerado y la aplicación de la revalorización. Así, los resultados muestran que:

- **Frecuencia de revalorización:** casi todos los países de la OCDE aplican un periodo fijo de revalorización, en general, una vez al año y principalmente en el mes de enero. Bélgica, en cambio, revaloriza las pensiones en el momento en que el IPC supera el umbral del 2%.
- **Periodo de referencia:** en general, se considera un periodo de referencia de 12 meses, pudiendo ser el año natural (enero-diciembre) u otro periodo (diciembre-noviembre, como en España).
- **Aplicación de la revalorización:** la mayoría de los países revaloriza las pensiones tres-cuatro meses después del periodo de referencia. Este periodo se acorta a dos meses en España y Francia y se alarga hasta seis meses en Austria.

Recientemente, algunos países han introducido cambios en los mecanismos de revalorización de las pensiones a la vista de la elevada inflación. En este sentido, Italia, Reino Unido y República Checa han ajustado las pensiones por debajo del índice de revalorización. Además, algunos países han ajustado la aplicación de la revalorización, adelantándolo (Francia y Finlandia) o retrasándolo (Portugal).

1. El IPC es el indicador de referencia, pero algunos países excluyen ciertos productos del cálculo del IPC, en particular aquellos que están sujetos a impuestos especiales: Bélgica (alcohol, tabaco y carburantes), Francia (tabaco) y Portugal (vivienda).

Fuente: Elaboración propia a partir de OCDE



Países	Método de revalorización			Frecuencia de revalorización		Cálculo y período de referencia
	Precios	Salarios	Mecanismo de salvaguarda	Frecuencia fija (mes(es) de indexación)	Umbral fijo (se aplica indexación si se supera el umbral definido)	
Austria	100% IPC (menor indexación para las pensiones superiores a un umbral)		Sin indexación negativa	Anual (enero)		Promedio de las tasas interanuales de la inflación mensual (en %) durante el último período agosto-julio
Alemania		20% del salario medio nominal ^a	Sin indexación negativa ^b	Anual (julio)		% de variación del salario medio entre el último año y el año anterior
Bélgica	100% IPC excluyendo alcohol, tabaco y combustibles		Sin indexación negativa		2%	Variación porcentual entre el índice mensual medio de los últimos cuatro meses y el índice de la última indexación
España	100% IPC		Sin indexación negativa	Anual (enero)		Promedio de las tasas interanuales de la inflación mensual (en %) durante el último período diciembre-noviembre
Finlandia	80% IPC	20% del salario medio nominal		Anual (enero)		Variación porcentual entre el 3er trimestre del último año y el 3er trimestre del año anterior
Francia	100% IPC excluyendo tabaco		Sin indexación negativa	Anual (enero)		Promedio de las tasas interanuales de la inflación mensual (en %) durante el último período diciembre-noviembre
Grecia	100% IPC ^c			Anual (enero)		% de variación del índice anual entre el último año y el año anterior
Italia	100% IPC (menor indexación para las pensiones superiores a un umbral)		Sin indexación negativa	Anual (enero)		Variación porcentual proyectada del índice anual entre el año en curso y el anterior
Noruega	50% IPC	50% del salario medio nominal		Anual (mayo)		Crecimiento proyectado de los salarios y precios en el año en curso, más corrección por diferencia entre el aumento proyectado y el efectivo con respecto al año pasado (precios) o los últimos dos años (salarios)
Países Bajos	100% IPC ^d			Anual (enero)		% de variación del índice entre el último mes de septiembre y el septiembre anterior
Portugal	IPC (sin vivienda) y crecimiento del PIB en función del PIB real y del nivel de las pensiones (entre el IPC - 0,75% y el IPC + hasta un 20% de crecimiento PIB real)			Anual (enero)		Promedio de las tasas interanuales de la inflación mensual (en %) durante los últimos 12 meses previos a octubre y el crecimiento medio del PIB real durante los últimos 24 meses previos a octubre
Suecia		100% del salario medio nominal ^d		Anual (enero)		Salario medio proyectado en el año en curso / (salario medio en el año anterior * 1,016)

a) Además del crecimiento medio de los salarios, la revalorización de las pensiones también incluye un ajuste a los cambios en la tasa de cotización y un factor de sostenibilidad que se ajusta a los cambios en la relación entre pensionistas y cotizantes. b) En 2022 se restableció el factor de recuperación que reducía las indexaciones positivas posteriores para compensar una indexación negativa anterior no aplicada. c) Si el PIB real retrocede, las pensiones se indexan en un 50 por ciento al IPC y en un 50 por ciento al crecimiento del PIB nominal. d) La indexación está condicionada a la financiación de las pensiones.



Herrialdeak	Errebalorizazio-metodoa			Errebalorizazio-maiztasuna		Kalkulua eta erreferentzia-aldia
	Prezioak	Soldatak	Babes-mekanismoa	Maiztasun finkoa (indexazio hilabetea(k))	Muga finkoa (indexazio aplikatzen da definitutako muga gainditzen bada)	
Austria	KPlaren % 100 (indexazio txikiagoa muga batetik gorako pentsioentzat)		Indexazio negatiborik ez	Urtero (urtarrila)		Hileko inflazioaren urte arteko tasen batez bestekoa (%-tan) azken abuztu-uztaila aldian
Alemania		Batez besteko soldata nominalaren % 20 ^a	Indexazio negatiborik ez ^b	Urtero (uztaila)		Azken urtearen eta aurreko urtearen arteko batez besteko soldataren aldakuntzaren %
Belgika	KPlaren % 100 alkohola, tabakoa eta erregaiak kenduta		Indexazio negatiborik ez		% 2	Azken lau hilabeteetako hileko batez besteko indizearen eta azken indexazioaren indizearen arteko ehuneko aldakuntza
Espania	KPlaren % 100		Indexazio negatiborik ez	Urtero (urtarrila)		Hileko inflazioaren urte arteko tasen batez bestekoa (%-tan) azken abendu-azaroa aldian
Finlandia	KPlaren % 80	Batez besteko soldata nominalaren % 20		Urtero (urtarrila)		Ehuneko aldakuntza azken urteko 3. hiruilekotik aurreko urteko 3. hiruilekora
Frantzia	KPlaren % 100 tabakoa kenduta		Indexazio negatiborik ez	Urtero (urtarrila)		Hileko inflazioaren urte arteko tasen batez bestekoa (%-tan) azken abendu-azaroa aldian
Grezia	KPlaren % 100 ^c			Urtero (urtarrila)		Azken urtearen eta aurreko urtearen arteko indizearen aldakuntzaren %
Italia	KPlaren % 100 (indexazio txikiagoa muga batetik gorako pentsioentzat)		Indexazio negatiborik ez	Urtero (urtarrila)		Proiektatutako urteko indizearen ehuneko-aldakuntza, azken urtearen eta aurreko urtearen artean
Norvegia	KPlaren % 50	Batez besteko soldata nominalaren % 50		Urtero (maiatza)		Soldaten eta prezioen urteko hazkunde proiektatua, gehi zuzenketa proiektatutako igoeraren eta efektiboaren arteko aldeagatik, iazkoarekiko (prezioak) edo azken bi urteekiko (soldatak)
Herbehereak	KPlaren % 100 ^d			Urtero (urtarrila)		Indizearen aldakuntzaren %-a azken irailtik aurreko irailera
Portugal	KPI (etxebizitza gabe) eta BPG hazkundera benetako BPGren eta pentsioen mailaren arabera (KPI - % 0,75 eta KPI artean + benetako BPGren % 20ko hazkundera arte)			Urtero (urtarrila)		Hileko inflazioaren urte arteko tasen batez bestekoa (%-tan) urria baino aurreko 12 hilabeteetan, eta benetako BPGren batez besteko hazkundera urria baino aurreko azken 24 hilabeteetan).
Suedia		Batez besteko soldata nominalaren % 100 ^d		Urtero (urtarrila)		Proiektatutako urteko batez besteko soldata / (aurreko urteko batez besteko soldata * 1,016)

a) Soldaten batez besteko hazkunderaz gain, pentsioen errebalorizazioak kotizazio-tasaren aldaketetara doitzea eta pentsiodunen eta kotizatzaileen arteko harremanean izandako aldaketetara egokitzen den iraunkortasun-faktorea kontuan hartzen ditu. b) 2022an, ondorengo indexazio positiboak murrizten zituen berreskurapen-faktorea berrezarri zen, aplikatu gabeko aurreko indexazio negatiboa konpentsatzeko. c) Benetako BPGk behera egiten badu, pentsioak KPlaren ehuneko 50ean indexatzen dira, eta BPG nominalaren hazkunderaren ehuneko 50ean. d) Indexazioa pentsioen finantzazioaren baitan dago.